## ELGOIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 20an hartutako akordioaren bidez, 2009 urtean, euskara arloko diru-laguntzak emateko deialdia xedatu du. Xedapenak honako hau dio:

*Elgoibarko udalerriko haur, nerabe eta gazteen interesekoak diren jarduerak egiten dituzten gazteria arloko irabazi asmorik gabeko talde eta elkarteei diru-laguntzak emateko oinarriak. 2009.*

*1. artikulua. Xedea.*

Diru-laguntza hauen xedea da irabazi asmorik gabekoak diren Elgoibarko talde eta elkarteei diru-laguntzak ematea, 2009 urterako programatutako ekintzak eta jarduerak burutu ditzaten. Jarduera horiek bat etorri beharko dute Udaleko Gazteria Batzordearen helburuekin. Hona hemen helburu horiek: Gizarte, kultura eta hezkuntza arloko programak sustatzea eta 5-30 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzenduta daudenak.

Diru-laguntza hauetatik kanpo geldituko dira diru-laguntza eskatu duten gazteria talde edo elkarteek zuzenean antolatzen ez dituzten jarduera edo proiektuak.

*2. artikulua. Aurrekontuko aurreikuspena.*

Elgoibarko Udalak aurrekontuko partida bat izendatu du programa honen xede diren diru-laguntzak direla-eta. Partida 9.000 eurokoa da, eta 1.0601. 481.460.00.01 2009 zenbakidun aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da (Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzak).

*3. artikulua. Onuradunak.*

Honako baldintza hauek betetzen dituzten erakunde guztiek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak:

Irabazi asmorik gabeko erakundeak eta elkarteak, egoitza udalerrian izanik, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuta daudenak.

Pertsona fisikoak, udalerrian erroldatuta daudenak, talde baten ordezkari partikular gisa, noizean behin antolatzen diren eta udalerrian burutzen diren irabazi asmorik gabeko ekimenentzat.

Pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, nortasunik gabeko elkarte publiko edo pribatuak baldin badira, honako hau adierazi beharko da berariaz bai eskabidean, bai emakidaren ebazpenean: Taldea osatzen duten kide guztiek onartzen dituztela exekuzio-konpromisoak eta bakoitzari ezar dakiokeen diru-laguntzaren zenbatekoa, guztiak izango baitira diru-laguntzaren onuradunak. Nolanahi ere, talde bakoitzeko ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko da. Horrek nahikoa ahalmen izango du, onuradun gisa, elkarteari dagozkion obligazioak bete ahal izateko. Ezin izango da elkartea desegin 50 eta 68 artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igarotzen ez den bitartean.

—&&Kasu hauetan, ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko da. Horrek nahikoa ahalmen izan beharko du, diru-laguntzaren exekuzioari dagokion konpromisoa hartzeko, diru-laguntzaren fondo guztiak erabiltzeko, eta onuradunari dagozkion gainerako obligazioak betetzeko. Nolanahi ere, onuradunei eskatzen zaizkien baldintzak eta obligazioak erakundea osatzen duten kide guztiei eskatu ahal izango zaizkie. Talde hauek ezin izango dira desegin ordenantza honetan edo ezar daitekeen legedian aurreikusitako preskripzio-epeak igarotzen ez diren bitartean.

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, mediante acuerdo de fecha 20 de abril de 2009 ha dispuesto la convocatoria 2009 de concesión de subvenciones en materia de Euskera, cuyo tenor es el siguiente:

*Bases para la concesión de subvenciones a las agrupaciones y asociaciones juveniles sin ánimo de lucro que desarrollen programas y actividades de interés de niños/as, adolescentes y jóvenes del municipio de Elgoibar. 2009.*

*Artículo 1.º Objeto.*

Es objeto de estas bases la regulación de las condiciones para la concesión de subvenciones a las agrupaciones y asociaciones sin ánimo de lucro de Elgoibar, para que lleven a cabo las actividades y actuaciones programadas para el 2009. Dichas actividades coincidirán con los objetivos de la comisión municipal de Juventud, que son los siguientes: Promover programas de interés social, cultural y educativo dirigidos a niñas, niños, adolescentes y jóvenes entre 5-30 años.

Quedan excluidas de estas subvenciones aquellas actividades o proyectos que no sean organizadas directamente por la asociación o agrupación juvenil solicitante.

*Artículo 2.º Previsión presupuestaria.*

El Ayuntamiento de Elgoibar destina una partida presupuestaria para las subvenciones objeto del presente programa que asciende a la cantidad de 9.000 euros y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0601. 481.460.00.01 2009 (Subvenciones a instituciones sin ánimo de lucro).

*Artículo 3.º Beneficiarios.*

Podrán solicitar subvenciones todas aquellas entidades que reúnen los siguientes requisitos:

Entidades y Asociaciones sin ánimo de lucro y domiciliadas en el municipio, inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

Personas físicas, empadronadas en el municipio, en representación particular de un grupo, para iniciativas de carácter esporádico sin ánimo de lucro, a desarrollar en el municipio.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración beneficiarios. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los 50 y 68.

En estos casos, deberá nombrarse un representante o apoderado único, con poderes bastantes para asumir el compromiso de ejecución de la subvención, aplicación de la totalidad de los fondos de la misma y cumplimiento del resto de las obligaciones que corresponden a la figura del beneficiario. En cualquier caso, los requisitos y obligaciones exigidos a los beneficiarios serán exigibles a todos los miembros de la entidad. Estas agrupaciones no podrán disolverse hasta que no hayan transcurrido los plazos de prescripción previstos en esta ordenanza o en la legislación que resultare de aplicación.

Nolanahi ere, agiri bidez egiaztatu beharko da zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Elgoibarko Udalarekikoak betetzen direla diru-laguntza eskatzen den unean. Horretaz gain, aldez aurretik, Elgoibarko Udalak emandako diru-laguntzak justifikatu beharko dira.

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak.-

Udaleko Diru-Laguntzen Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan jasotakoez gain, honako hauek izango dira pertsona onuradunen betebeharrak.

3.1. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak edo programak Elgoibarko udalerrian burutzea.

3.2. Gazteria Batzordearen aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.

3.3. Gazteria Batzordeak egingo dituen ikuskapenen pean jartzea, eta Udalak ezinbestean egin behar dituen konprobatze-jarduerak ez eragoztea.

3.4. Jarduera bererako lortu den beste edozein diru-laguntzaren berri ematea. Informazioa horren berri izan bezain laster eman beharko da, eta betiere, Udaletik jasotako fondoen erabilera zuritu aurretik.

3.5. Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, ohiko jardueretan barne, zehaztu egin beharko da Udalaren lankidetza izan dela. Arau hau bete ezean, diru-laguntzak kendu edo gutxitu egingo dira.

3.6. Diru-laguntza zertarako ematen den, hartarako erabili beharko da ezinbestean.

3.7. Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsaren ondorioz, onartu egin beharko da diru-laguntza horren emakida arautzen diren oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

3.8. Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak eta zehaztapenak bete ezean, diru-laguntzak baliogabetu ahal izango dira.

3.9. Inola ere ezingo zaie diru-laguntzarik eman oraindik zuritu gabeko fondoak dituzten Erakundeei. Fondo horiek erreklamatu ahal izango dira, eta zerga zortzat hartuko dira.

3.10. Diru-laguntzaren onuradun den Erakundeak bere gain hartuko ditu ekitaldia antolatzeak dakartzan erantzukizunak. Horretarako, erantzukizun hori bermatuko duten aseguru polizak egingo ditu.

3.11. Jasotako fondoen erabilera egiaztatzen duten agiriak, bost urtez gorde beharko dira gutxienez.

3.12. Oinarri hauetan aipatutako diru-laguntzaren bat ematen bada ere, Elgoibarko Udalaren eta diru-laguntzaren onuradun den pertsonaren edo erakundearen artean ez da inolako kontratuzko harreman zibil, laboral, administratiborik sortuko, ezta beste edozein motatako harremanik ere.

3.13. Jendaurreko testuetan nahiz ahozko komunikazioetan hizkera ez sexista erabiltzea, eta antolatutako jardueretan genero ikuspegia zaintzea.

3.14. Haur, nerabe eta gazte guztien integrazioaren alde lan egitea.

3.15. Diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbesteko baldintza izango da euskara erabiltzea, bai bakarrik, bai gaztelaniarekin batera. Baldintza hau nahitaez bete beharko da jendaurrean iragartzen diren idatzi, iragarki, ohar, guztietan.

En todo caso se exigirá acreditación documental de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias, de Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Elgoibar a la fecha de solicitud de la subvención, y haber justificado las subvenciones anteriormente concedidas por el Ayuntamiento de Elgoibar.

Son obligaciones del beneficiario.-

Son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las recogidas en el Artículo 11 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento, las siguientes:

3.1. Desarrolar las actividades o programas objeto de la subvención, en el municipio de Elgoibar.

3.2. Acreditar ante la Comisión de Juventud, la realización de la actividad y el cumplimiento de los requisitos que se determinen en cada caso.

3.3. Someterse a las labores de inspección que efectúe la Comisión de Juventud y no entorpecer las actuaciones de comprobación a realizarse obligatoriamente por el Ayuntamiento.

3.4. Comunicar la obtención de cualquier otra subvención para la misma actividad. Esta comunicación se deberá realizar nada más se tenga conocimiento de ello y, siempre, antes de justificar la utilización de fondos recibidos del Ayuntamiento.

3.5. En toda publicidad que se realice de las actividades subvencionadas incluidas las actividades ordinarias deberá hacerse constar la colaboración del Ayuntamiento. El incumplimiento de esta norma supondrá la anulación o disminución de las ayudas económicas.

3.6. No se autoriza cambio de destino de las subvenciones concedidas.

3.7. La mera presentación de solicitud de subvención para una actividad, implica el conocimiento y aceptación del contenido de las bases que regulan su concesión.

3.8. El incumplimiento de las obligaciones y determinaciones contenidas en estas bases podrá dar lugar a la revocación de las subvenciones.

3.9. En ningún caso podrán concederse nuevas subvenciones a Entidades que tuvieran aún en su poder fondos pendientes de justificar, las cuales podrán ser reclamadas, teniendo el carácter de deuda tributaria.

3.10. La Entidad beneficiaria de la subvención asumirá las responsabilidades que la organización del acto conlleve, suscribiendo las oportunas pólizas de seguro que garanticen dicha responsabilidad.

3.11. Conservar durante cinco años como mínimo los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos.

3.12. La concesión de las subvenciones a que se refieren las presentes bases, no implicará relación contractual alguna de carácter civil, laboral, administrativo o de cualquier otro tipo entre el Ayuntamiento de Elgoibar y la persona o entidad beneficiaria de la subvención.

3.13. Utilizar tanto en textos públicos como en la comunicación hablada un lenguaje no-sexista y mantener la perspectiva de género en todas las actividades organizadas.

3.14. Trabajar para la integración de todos/as los/as niños/as, adolescentes y jóvenes.

3.15. Se establece como condición necesaria para recibir estas ayudas económicas la utilización del euskera, bien exclusivamente o conjuntamente con el castellano, obligatoriamente en todos los escritos, anuncios, notas, etc., que se den a conocer al público.

Euskara eta gaztelania batera erabili behar baldin badira, edonola ere, lehentasuna eman beharko zaio euskarari, eta ondoren zehaztuko diren baldintzak bete beharko dira:

Jendaurreko testuak (kartelak, iragarkiak, programazioak, esku-orriak) euskaraz edo ele bietan idatziko dira (euskaraz eta gaztelaniaz), antzeko edukia duten kasuetan izan ezik. Horiek euskaraz bakarrik idatziko dira. Hala eta guztiz ere, azken idatzi hauek ele bietan idatzi arren, lehentasuna emango zaio euskarari; bai kokapenari (euskarazko testua goialdean jarri beharko da), bai karaktereen tamainari dagokionez. Euskarazko testuak Udaleko Euskara Sailak ikusi eta onetsi ahal izango ditu, horien zuzentasun linguistikoa bermatze aldera.

Idatzizko komunikazioan, euskara bakarrik erabiltzeko joera izango da. Bi hizkuntza ofizialak erabili behar badira, lehentasuna emango zaio euskarari. Horretarako, euskarazko mezua gaztelaniazkoaren aurretik emango da. Mezua errepikatu behar bada, euskarazkoa gaztelaniazkoa baino bi aldiz gehiago eman beharko da, gutxienez.

16 urtetik beherakoei zuzendutako mezu guztiak (idatziak, hitzaldiak, e.a.) euskaraz izan beharko dira.

*4. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.*

Eskabideak Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu beharko dira, eta horretarako hilabeteko epea izango da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da.

4.1. Gazteria arloko erakundeei diru-laguntza emateko eskabidea. Eskabidea behar bezala bete, eta lege-ahalmena duenak edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko eskubidea duenak sinatu beharko du (www.elgoibar.org helbidean eskuragarri).

4.2. Erakundearen ardura duen pertsonaren NANaren fotokopia, edo agiri baliokidea.

4.3. Diru-laguntza eskatu duen gazteria arloko erakundearen IFZ/IFKren fotokopia.

4.4. Gazteria arloko erakundearen kontuko bankuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria. Titularitateak bat etorri beharko du eskaera egin duen gazteria arloko erakundearen identitatearekin (jarraian zehaztuko diren agiri guztiek balioko dute). Bankuko laburpenaren fotokopia; libretaren fotokopia; banku-erakundeak emandako egiaztagiria edo, diru-laguntza eskabidearen inprimakian bertan, «erakundearen bankuko datuak» jartzen duen atalean banku-erakundeak emandako zigilua. Agiri hauek diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen bada bakarrik aurkeztu beharko dira, edo aurreko ekitaldian emandako diru-laguntzan ageri zen bankuko kontua aldatu baldin bada.

4.5. Burutuko diren jarduerak, fitxa ereduaren arabera (www.elgoibar.org helbidean eskuragarri). Jarduera motak, helburuak eta garapenari buruzko eskema laburra zehaztuko dira. Jarduera zein egunetan eta tokitan egingo den, gutxi gorabeherako partaide kopurua, sarreren prezioa (baldin badaude), behar diren udal baliabideak zehaztuko dira. Jarduera bakoitzeko fitxa bat aurkeztu beharko da.

4.6. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitorpen erantzulea (www.elgoibar.org helbidean eskuragarri).

4.7. Sarreren eta gastuen aurrekontua. Berariaz aipatu beharko dira beste erakunde pribatu edo publiko batzuetatik jasotako ekarpenak (ekarpen erreala edo aurreko urteetako datuen araberakoa). Elgoibarko Udaleko beste batzorde edo sail batzuei egindako eskabideak ere aipatu beharko dira.

Cuando se dé la utilización conjunta del euskera y del castellano, se deberá dar prioridad en todo caso al euskera, y se deberán cumplir los siguientes requisitos:

Los textos públicos (carteles, anuncios, programaciones, folletos) se redactarán en euskera o en bilingüe (euskera y castellano), excepto aquellos que tienen siempre un contenido parecido, que se redactarán únicamente en euskera. Ahora bien, en el caso de que éstos últimos estén en bilingüe se dará preferencia al euskera, tanto en su ubicación (situando el texto en euskera en la parte superior) como en el tamaño de los caracteres. Con la finalidad de garantizar la corrección lingüística de los textos en euskera éstos podrán ser visados por el Servicio de Euskera de este Ayuntamiento.

En la comunicación hablada se tenderá a utilizar únicamente el euskera y, en caso de ser necesaria la utilización de las dos lenguas oficiales, se dará preferencia al euskera emitiendo el mensaje en euskera antes que el de castellano y repitiéndolo al menos el doble de veces en caso de ser repetitivo.

Todos los mensajes (escritos, charlas, etc) dirigidos a menores de 16 años deberán ser en euskera.

*Artículo 4.º Solicitudes y documentación.*

Las solicitudes de subvención deberán presentarse en la Oficina de Atención al Ciudadano, en el plazo de un mes a partir de la publicación de la convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Se deberá presentar la siguiente documentación:

4.1. Impreso de solicitud de subvención a entidades juveniles, debidamente cumplimentado y firmado por quien tenga capacidad legal o derecho a representar a la entidad solicitante (disponible en www.elgoibar.org).

4.2. Fotocopia del DNI o documento equivalente de la persona responsable de la entidad.

4.3. Fotocopia del NIF/CIF de la entidad juvenil solicitante.

4.4. Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la entidad juvenil, que tiene que coincidir con la identidad de la entidad juvenil solicitante (será válido, o cualquiera de los siguientes documentos: Fotocopia del extracto bancario; fotocopia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado»datos bancarios de la entidad» del mismo impreso de soliclitud de subvención). Solo presentar en caso de solicitar esta subvención por primera vez o por cambio o modificación de cuenta bancaria referente a la subvención concedida en el ejercicio anterior.

4.5. Actividades a desarrollar según modelo de ficha (disponible en www.elgoibar.org). Se deberán indicar tipo(s) de actividad(es), objetivos y breve esquema de su desarrollo, fecha y lugar de celebración, número estimado de participantes, precio de entrada (en su caso), materiales municipales necesarios. Presentar una ficha por cada actividad.

4.6. Declaración responsable de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social (disponible en www.elgoibar.org).

4.7. Presupuesto de ingresos y gastos, con mención explícita de las aportaciones recibidas de otras entidades públicas o privadas (aportación real o en base a datos de años anteriores) y solicitudes realizadas a otras Comisiones o Departamentos del Ayuntamiento de Elgoibar.

Diru-laguntza eskabidea aurkeztearekin bat, erakunde eskatzaileak aitortu egingo du deialdian ezarritako betebehar guztiak betetzen dituela, eta osotasunean onartzen dituela. Era berean, eskatzaileak adierazi egin beharko du eskabideetan jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jaso direla. Era berean, datuei tratamendu automatizatua ematea eta Elgoibarko Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea onartuko du; eta baimena emango du datu horien erabilera Udalaren gestiora mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrengoei utzi ahal izango zaizkie, Norbanakoen Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

Arestiko atalean aipatutako agiri edo egiaztagiriren bat aurkezten ez bada, interesatuari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztutako dokumentazioa osatzeko. Horrela egin ezean, bere eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo da.

4.8. Zinpeko aitorpena. Bertan adierazi egin beharko dira beste erakunde edo organismo batzuei eskatutako diru-laguntzak edo dagoeneko emandako gainerako diru-laguntzak.

4.9. Zinpeko aitorpena, diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez dagoela egiaztatzeko. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 2. eta 3. artikuluetan zehazten dira.

Eskabidea aurkezte hutsaren ondorioz, eskatzaileak goitik behera onartu beharko ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak.

Ez da bestelako dokumentaziorik onartuko.

Eskatutako dokumenturen bat, aldez aurretik, Elgoibarko Udalari aurkeztu baldin bazaio, eskatzaileak ez du bigarrenez aurkezteko obligaziorik izango; baldin eta dokumentua estreinakoz aurkeztu zuenetik bost urte edo gehiago igaro ez badira. Horretarako, eskabidean bertan zehaztu beharko du, zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren agiri horiek.

Hala ere, dokumentu horiek eskuratzea erabat ezinezkoa izango balitz, organo eskudunak dokumentuak berriz eskatu ahal izango lituzke, ebazpenaren proposamena egin aurretik.

*5. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak 9:00etatik 13:00etara aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, Udaleko Erregistro Nagusian. Horretarako, hilabeteko epea izango da oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik hasita.

Eskabideak aurkezteko epea larunbatean, igandean edo jaiegunen batean bukatzen bada, epea hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuko da.

*6. artikulua. Balorazio irizpideak.*

Diru-laguntza eskabideak honako irizpide eta baremo hauen arabera baloratuko dira.

6.1. Proposatutako programaren ezaugarriak:

Gehienez ere, 40 puntu; horretarako, honako arlo hauek izango dira kontuan:

6.1.1. Programak gazteria esparruari egiten dion ekarpena.

6.1.2. Aurreko urtean egin ziren jarduerek lortu zuten interesa, herritarren artean izan duen errotzea edo erabilera, hedapena, zabalkundea eta garrantzia. Herri, autonomia, estatu edo/eta nazioarte mailako garrantzia.

Con la presentación de la solicitud de subvención, la entidad solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que los acepta íntegramente. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancias son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Elgoibar y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/ 1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

En caso de no presentar alguno de los documentos y justificaciones que se señalan en el apartado anterior, se concederá al interesado un plazo de 10 días a los efectos de subsanar o complementar la documentación aportada. Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición archivándose sin más trámite.

4.8. Declaración jurada en la que se haga constar las solicitudes de subvención formuladas ante otras entidades u organismos, o aquellas subvenciones que ya le han sido otorgadas.

4.9. Declaración jurada de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del Artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.

La presentación de la solicitud implica que el solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.

No se aceptará otro tipo de documentación.

En el caso de que alguno de los documentos requeridos haya sido ya presentado anteriormente en el Ayuntamiento de Elgoibar, el solicitante no se verá obligado a presentarlo por segunda vez, siempre que no hayan transcurrido cinco o más años desde que lo hizo. Para ello, deberá indicar en la solicitud en qué fecha y a qué órgano o dependencia fueron presentados dichos documentos.

Sin embargo, si fuese materialmente imposible conseguir dichos documentos, el órgano competente podría solicitar su presentación antes de la formulación de la propuesta de resolución.

*Artículo 5.º Plazo para la presentación de solicitudes.*

Las solicitudes se podrán presentar de 9:00 a 13:00 horas, de lunes a viernes, en el Registro General del Ayuntamiento, dentro del plazo de un mes contado a partir de la publicación de las presentes bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si el plazo de presentación de solicitudes finaliza en sábado, domingo o festivo, se entenderá prorrogado hasta las 13:00 horas del siguiente día hábil.

*Artículo 6.º Criterios de valoración.*

Las solicitudes de subvención se valorarán conforme a los siguientes criterios y baremos:

6.1. Características del programa propuesto:

Con un máximo de 40 puntos, teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

6.1.1. Aportación que realiza el programa al ámbito juvenil.

6.1.2. El grado de interés, arraigo o utilidad ciudadana, grado de popularidad, divulgación e importancia adquirida en las actividades desarrolladas en el año inmediatamente anterior. El grado de incidencia local, autonómica, estatal y/o internacional.

6.1.3. Jardueraren xedea, haur eta gazteen esparruetan izan dezakeen eragina kontuan izanik.

6.1.4. Programaren xedea herritar guztien gizatasuna; beste erakunde, herritar eta eragile batzuekiko inplikazioa handitzeko bideratuta egotea.

6.1.5. Jarduera bakoitzean izan den partehartzaile kopurua edo/eta ikusle kopurua ere baloratuko dira.

6.1.6. Proposatutako jardueraren antzekorik ez egotea.

6.1.7. Proposatutako programaren bilakaera eta sendotzea.

6.1.8. Egingo diren jarduaretan euskara erabiltzea. Diruz lagunduko den taldeak edo elkarteak, oro har, euskara sustatzea.

6.2. Erakunde eskatzailearen ezaugarriak:

Gehienez ere, 40 puntu; horretarako honako arlo hauek izango dira kontuan:

6.2.1. Erakunde eskatzailearen jarraikortasuna eta egonkortasuna.

6.2.2. Udalak antolatzen dituen ekimenetan parte hartzea.

6.2.3. Erakunde eskatzailearen dedikazioa eta gizataldea.

6.2.4. Taldearen edo elkartearen antolamendu juridikoa eta funtzionamendua. Bazkide kopurua edo taldean parte hartzen duten pertsonen kopurua.

6.3. Erakundearen finantza-baliabideak; baliabideen arteko proportzionaltasuna, bestelako diru-laguntzak eta aurkeztutako gastuen aurrekontua.

Gehienez, 20 puntu.

6.3.1. Lortutako laguntza ekonomikoak edo diru-laguntzak eta beste erakunde edo organismo publiko edo pribatu batzuetatik lor ditzaketenak.

6.3.2. Jardueraren zenbatekoa eta aurrekontua justifikatzea.

*7. artikulua. Akordioa.*

Behin eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Gazteria Batzordeak aztertuko ditu. Agiriren bat falta baldin bada, 10 eguneko epea emango da, akatsa konpondu ahal izateko.

Epe hori bukatu eta eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, uste izango da diru-laguntzaren eskabideari uko egin zaiola.

Azkenik, eta sailaren txosten teknikoa jaso ondoren, Gazteria Batzorde informatzaileak diru-laguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, dagokion ebazpena eman dezan.

Ebazpena, gehienez ere, hiru hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Epe hori igarota, Udalak eskabideren bati buruzko ebazpenik eman ez badu, uste izango du eskabide hori ez dela onartu.

Udalak, batzorde informatzailearen bidez, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, akordioari buruzko proposamena egin aurretik.

6.1.3. Finalidad de la actividad, atendiendo a su incidencia en los sectores de la población infantil y juvenil.

6.1.4. Dirigirse el programa a desarrollar a toda/os la/os ciudadana/os, su proyección humana, nivel de implicación de otras entidades, ciudadana/os y agentes.

6.1.5. Se valorará el número de participantes y/o público de cada actividad.

6.1.6. La inexistencia de actividades similares a las propuestas.

6.1.7. Trayectoria y afianzamiento del programa propuesto.

6.1.8. La utilización del euskera en las actividades a realizar, su potenciación en general por parte del grupo o Asociación a subvencionar.

6.2. Las características de la entidad solicitante:

Con un máximo 40 puntos, considerando los siguientes aspectos:

6.2.1. Continuidad y estabilidad de la entidad solicitante.

6.2.2. Ser participativo en las iniciativas del Ayuntamiento.

6.2.3. Dedicación de la entidad solicitante y su equipo humano.

6.2.4. Organización jurídica y de funcionamiento del grupo o Asociación, número de socios o personas que participan en el grupo.

6.3. Recursos financieros de la entidad; proporcionalidad entre sus recursos, otras subvenciones y el presupuesto de gastos presentado.

Máximo 20 puntos.

6.3.1. Ayudas económicas o subvenciones obtenidas o que pudieran conseguir de otras entidades u organismos públicos o privados.

6.3.2. Cuantía de la actividad y justificación del presupuesto.

*Artículo 7.º Acuerdo.*

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán estudiadas por la comisión de juventud y en el caso de que faltase algún documento se concederá un plazo de 10 días para su subsanación.

Finalizado dicho plazo sin haberse presentado la documentación requerida, se entenderá que se desiste en la solicitud de subvención.

Finalmente, y tras recibir el informe técnico del departamento, la comisión informativa de juventud hará la propuesta de concesión de subvenciones al Alcalde para que éste adopte la resolución oportuna.

La resolución será emitida en el plazo máximo de tres meses contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.

Diru-laguntza ematerako orduan kontuan izan diren baldintzak edo xede bererako beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntzak aldatzen badira, diru-laguntza emateko akordioa ere aldatu ahal izango da.

*8. artikulua. Diru-laguntza ordaintzeko era.*

Emandako diru-laguntza bi epetan ordainduko da (lehenengo %85, eta ondoren, gainerako %15a).

Lehenengo %85a ordaintzeko hilabeteko epea izango da, Organo eskudunak diru-laguntza ematea onartzen duenetik hasita.

Gainerako diru-laguntza jasotzeko (%15), ondoren zehaztuko diren agiriak aurkeztu beharko dira Elgoibarko Udaleko Erregistro Nagusian, 2010eko urtarrilaren 15eko 13:00ak baino lehen.

Elkartearen jarduerei buruzko txostena. Jarduerak orokorrak zein diruz lagundutakoak izango dira.

8.1. Jarduera guztien zerrenda.

8.2. Programatutako jarduerei buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-orriak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak, e.a.). Egindako publizitatearen ale bat. Bertan, Elgoibarko Udalaren babesa agertu beharko da. Horretarako, «Elgoibarko Udala» eta «Gazteria Saila» inskripzioak jarri beharko dira, eta Udalaren logotipoa ere agertu beharko da.

8.3. Emaitza ekonomikoen eta balantze errealen memoria.

8.4. Egindako gastuei buruzko faktura originalak edo kopia konpultsatuak. Beste erakunde batzuek emandako laguntza ekonomikoei buruzko akordioen fotokopiak.

Elkarteak, justifikatutako arrazoirik izan gabe, guztiz edo zatika, programatutako jarduerak egiten ez baditu edo oinarri hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, Udalak kobratzeko dagoen diru-laguntzaren zatia ez ordaintzeko erabakia hartu ahal izango du. Horretaz gain, Udalak dagoeneko jasota dagoen diru-laguntza osoa edo horren zati bat itzultzera behartu ahal izango du onuraduna.

*9. artikulua. Diru-laguntzak aldi berean lortzea.*

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria izango da xede bererako jasotzen den beste edozein diru-laguntzarekin.

Dena dela, diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du, berak bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jarduerаren kostua gainditu.

*10. artikulua. Zehapen Araudia.*

Onuradunek, dagokion espedientea tramitatu ondoren, Gazteria Batzordeak zehazten duen zenbatekoa itzuli beharko dute, ondoren zehaztuko diren kasuetan:

10.1. Adierazitako epean, 8. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aztertzen ez bada.

1.2. Eskabidearen datuetan gezurrak sartzen badira.

10.3. Aurkeztutako eta diruz lagundutako proiektuan aurreikusitako jarduerak egiten ez badira.

10.4. Publizitate agirietan Elgoibarko Udalaren babesa edo laguntza aipatzen ez baldin bada.

10.5. Euskarari lehentasunik ematen ez bazaio.

La modificación de las condiciones tenidas en cuenta al otorgar la subvención, así como las ayudas económicas recibidas por otras entidades con el mismo fin, podrán conllevar una modificación en el acuerdo de concesión de la subvención.

*Artículo 8.º Forma de pago de la subvención.*

La subvención concedida será abonada en dos plazos (primero el 85% y después el 15%).

Este 85% se abonará en el plazo de un mes contado a partir de la aprobación por parte del Organo competente, de la concesión de la subvención.

Para el cobro del resto de la subvención (15%) se deberá presentar los siguientes documentos en el Registro General del Ayuntamiento de Elgoibar, antes de las 13:00 horas del 15 de enero de 2010.

Memoria de las actividades de la asociación, tanto las globales como las subvencionadas:

8.1. Relación de todas las actividades.

8.2. Documentación gráfica sobre las actividades programadas (carteles, folletos, libretos, material escrito distribuido, notas de prensa, etc.). Un ejemplar de la publicidad realizada, en la que habrá de constar el patrocinio del Ayuntamiento de Elgoibar, con la inscripción «Elgoibarko Udala» y «Gazteria Saila» y el logotipo del Ayuntamiento.

8.3. Memoria de los resultados económicos y balances reales.

8.4. Originales o copias compulsadas de las facturas de los gastos realizados. Fotocopias de los acuerdos de concesión de ayudas económicas por otras instituciones.

Si la asociación, sin tener ninguna causa justificada, no cumpliese las actividades programadas o las obligaciones establecidas en estas bases, sea total o parcialmente, el Ayuntamiento podrá acordar no abonarle la parte de subvención pendiente por cobrar, incluso obligarle a devolver el importe total o parcial ya cobrado.

*Artículo 9.º Concurrencia de las subvenciones.*

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

Sin embargo, el importe de la subvención no podrá ser, por sí sola o junto con otras subvenciones, nunca superior al costo de la actividad subvencionada.

*Artículo 10.º Régimen sancionador.*

Los beneficiarios se verán obligados a devolver el importe que, previa tramitación del correspondiente expediente, se determine por la Comisión de Juventud, en los supuestos que a continuación se señalan:

10.1. Cuando no se haya presentado dentro del plazo indicado la documentación a que se hace referencia en el Artículo 8.º

10.2. Falsedad en los datos de la solicitud.

10.3. Cuando no se hayan llevado a cabo las actividades previstas en el proyecto presentado y subvencionado.

10.4. Cuando en la documentación publicitaria se haya obviado la indicación del patrocinio o ayuda del Ayuntamiento de Elgoibar.

10.5. Cuando no se haya utilizado el euskera prioritariamente.

10.6. Edozein programatan alkoholdun edariei edo edozein drogari buruzko aipamena egiten bada edo horien kontsumoa bultzatzen bada.

10.7. Jarduera burutzen den bitartean, edozein motatako diskriminazioren bat gertatu dela egiaztatzen bada.

10.8. Diru-laguntza ematerakoan kontuan izan den edozein baldintza aldatzen bada.

10.9. Diru-laguntza ematerakoan kontuan izan den xedea betetzen ez duten jarduerak egiten badira.

10.10. Deialdi honetan ezarritako betebeharrak, edo hala badagokio, emakida-egintzan ezarritakoak ez betetzen ez badira.

10.11. Beste edozein xedapenen bidez oro har ezarritako betebehar guztiak betetzen ez badira.

*11. artikulua. Interpretazioa.*

Gazteria Batzordearen eskumena izango da oinarri hauen ondorioz gerta litezkeen zalantzak interpretatzea eta ebaztea.

*12. artikulua. Araudi osagarria.*

Oinarri hauetan berariaz jaso ez diren kasu guztietan, Elgoibarko Udalaren eta bere Autonomiadun Erakundeen Diru-laguntzen Ordenantzan xedatutakoa izango da kontuan. Era berean, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa ere izango da kontuan.

Elgoibar, 2009ko apirilaren 22a.—Alfredo Etxeberria Murua, Alkatea.

(1973) (8078)

10.6. Cuando en cualquier programa se haga alusión a las bebidas alcohólicas o cualquier droga potenciando el consumo de las mismas.

10.7. Cuando en la actividad quede probado que ha existido una discriminación sea del tipo que sea.

10.8. Modificación de cualquier condición tenida en cuenta a la hora de conceder la subvención.

10.9. El uso de la subvención en actividades distintas a aquellas para las que fue concedida.

10.10. Incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente convocatoria o, en su caso, de las que se establezcan en el acto de concesión.

10.11. Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

*Artículo 11.º Interpretación.*

Será competencia de la Comisión de Juventud, la interpretación y resolución de las dudas que de las presentes bases pudieran resultar.

*Artículo 12.º Normativa complementaria.*

En todos aquellos casos que no se han recogido expresamente en estas bases, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Elgoibar y sus Organismos Autónomos. Además, se tendrá en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003 General de subvenciones.

Elgoibar, a 22 de abril de 2009.—El Alcalde, Alfredo Etxeberria Murua.

(1973) (8078)